

## **Gazteak ere emakumeon indarkeriaren kontra**

Gaztaroa garai berezia izaten da pertsonon bizitzan, garai honetan gure etorkizuna markatuko duten hainbat aldaketa eta gertaera ematen baitira. Gazte bakoitzak bere ohiturak, pentsamoldeak eta bizimodua izango ditu eta pixkanaka garai honetatik abiatuta, bere nortasuna, balioak, harremanei buruzko ikuspegia eta jokabide ereduak finkatzen joango da.

Ezin uka dezakegu beraz, garai honek berebiziko garrantzia duela, betidanik gazteria, aldaketa, iraultza eta eraldaketarekin lotu izan baita. Gazteek badugu berezko indar bat jendarte joera eta dinamika berriak sortzeko. Euskal Herrian milaka gara bizi eredu berrien alde eta gazteei egokitzen zaigun errealitate gordinaren iraultetarako borroka lanetan, eta gaurko egunean **NAFARROAKO GAZTE KONTSEILUA, EUSKADIKO GAZTE KONTSEILUA, SEGI, DUINA eta IKASLE ABERTZALEAK**, emakumeon indarkeriaren kontrako gure konpromisoa adierazi nahi dugu.

Gazte askori sexuaren araberako diskriminazioa ezabatu egin dela iruditzen zaio, edota oso kasu konkretuetan ematen dela. Badirudi desberdintasuna beste garai eta une historiko bateko oroigarria dela, gaur egungo belaunaldiak berdintasunean hezi garela, barruti baztertu batzuetan soilik aurki dezakegula emakumeon kontrako diskriminazioa. Ikuspegi horretatik, sexuen arteko desberdintasun nagusi gehienak ezabaturik, gizona eta emakumezkoen arteko diferentziak bakarrik geratzen dira. Askotan ez ditugu emakume eta gizonen arteko diferentziak kolokan jartzen, ezta kritikatzeko ere. Segurutzat jotzen ditugu eta horietatik abiatuta egiten ditugu mutil eta nesken erretratuak; honela, neska mutilek, jendarteak ezarritako gizona eta emakumezkoaren estereotipoak jarraitzen diegu estu – estu, beste aukera batzuk planteatu gabe.

Diskriminazio egoera ezberdinen artean bada egun emakumeen kontrako indarkeria bezala izendatzen dugun arazoa. Gazteengan ere bizi bizirik eta modu bortitzean agertzen dena. 9 dira Euskal Herrian eraildako emakumeak aurrean, horien artean 4 gazteak. Egunkariak, emakumeen kontrako indarkeria dela eta ematen diren atxiloteta, salaketa eta abarren notiziez josita daude egunero. Atxilotuen adin tartea behatuz gero konturatzen gara erasotzaileak ez direla uste izaten dugun bezain zaharrak, erasotzaileak geroz eta gazteagoak dira eta beldurgarria da gizona gazte erasotzaileen kopurua. Ezin ahaztu gazteek hain gustuko ditugun jaietan gertatzen diren bortxaketa eta erasoak. Guzti honek eta gazteengan egun ematen diren balio erasokor eta ezkorren gorakadak konponbiderako berehalako neurriak eskatzen ditu, horien artean gazte eragileek arazo honekiko hartu beharreko konpromisoa.

Hala ere, ez dagokigu soilik gazteoi emakumeen kontrako indarkeriaren gaia lantzea, instituzioek problematika honetan duten erantzukizuna ukazina baita. Bertatik, gazteek jarraitzen ditugun estereotipo eta ereduak bideratzen jarraitzen dira, lege eta plan antzu anitzak plazaratzen dira, instituzioek konpetitibitatean eta indarkerian oinarritutako hezkuntza sistema iraunarazten dute eta ondorioz gure jendartearen etorkizuna. Sistema kapitalista eta patriarkalak sortutako injustizia ezberdinen egonkortzaile nagusiak dira eta beraz egoera honen aldaketa bere esku ere badago hein handi batean.

Urgentziazko eta larritasun handiko arazo honen aurrean eta Azaroak 25, *emakumearenganako indarkeriaren aurkako eguna* hurbiltzen ari den honetan, gazte mugimenduko eragile ezberdinek **Euskal herriko Bilgune Feministarekin** elkarlanean, emakumeon indarkeria eta orokorrean sufritzen dugun diskriminazioaren kontra lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, gazteak egoera honi aurre egiteko beharrezkoak dituzten tresnak mahai gaineratzeko.

Honekin batera datozen egunotan Euskal Herriko bai ikastetxe eta unibertsitateetan egingo diren mobilizazio guztietan eta mugimendu feministak egun horretarako deituak dauzkan mobilizazio guztietan parte hartzera gonbidatu nahi dugu euskal gazteria.

Ez dugu erailketa, tratu txar, bortxaketa, nahiz eraso ezberdinak pairatzen jarraitzeko asmorik. Guzti honekin amaitzea guztion ardura eta zeregina da. Gazteek Euskal Herri parekidea sortzen eta eraikitzen joateko beharrezko oinarriak behar ditugu eta sexuaren araberako diskriminazioak duen inportantziaz jabetu beharra dugu. Bakoitzak bere eremutik buruturiko lanarekin bakarrik amaituko baitugu, sexuen arteko harreman hierarkikoekin eta zapalduak gauzkan sistema kapitalista patriarkarrekin.